

Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦



DANI BLANCO

Azal apain

BASERRIKO LANETAN inoiz aritu izan garenok maiz entzun izan dugu, gure eskualdean behintzat, azal-apain hitza, azalekoa jorratu edo apaindu esanahiarekin. Gehienetan, ordea, sakonago landu beharreko alorra, azala apaindu eta ondo landutakoaren itxurak eginda utzi dutela salatzeke, esanahiarekin erabili ohi zen.

Orain ugaltzen ari dira gisa hone-tako jardunak eta psikologo bat etxean sarrarazten dugu geure nerabeek, umeek eta baita haurrek ere, burutik behera kaka egiten digutenean eta egoera bideratzeko gaitasunik ez dugunean. *Personal Trainer* bat behar dugu geure osasuna eta elikadura zaintzeko nahiz kirola nola egin orientatzeko; irudia zaindu nahi badugu ere ez dago *Personal Shopper* baten laguntza kontratatatu besterik eta bera izango dugu itsu-aurreko arropa erosterakoan, geure burua edo etxea apaintzerakoan... eta *Personal Shopper* teknologikoa, gero eta gehiago beharko duguna segapoto, iPhone, iPod, txartel festa... eta auskalo zenbat teknologia, guretzat ezezagun eta ikastezinezko, taxuz erabil ahal izateko. Antzeko izenduna, orain-tsu arte dirudunen eskura baino ez zegoena, txoferra eta batzuentzat *txoperra*, autoa gidatzeaz gain hainbat aholku eman ere egingo zuena, seguru asko!

Alde batetik, independentzia lortu nahian gabil-tza eta bestetik, gero eta besteren mendekoago ez al gara? Aipatu bitartekari horiek denak behar al ditugu geure buruaren jabe izateko?

Alde batetik, independentzia lortu nahian gabil-tza eta bestetik, gero eta besteren mendekoago ez al gara? Gorago aipatu bitartekari horiek denak behar al ditugu geure buruaren jabe izateko? Ala, buruja-be izan ez gaitzen sortutako, itxura batean beharrezko diren alferrikako eranskinak ditugu? Zerta-

rako? Ondo pentsatuz gero, gaizki egiteko. Itxurakeria hutsak bete gaitzan!

Zertarako baino, behar ditugulako ala beharra sortzeko? Denbora izan arren, geuk behar ditugun gauzak ikasteko astirik ez dugulako hartzen? Zertarako hainbeste karrera, gradu eta titulu, sena galtzen ari bagara? Zertarako hainbeste lagun, denbora gehiena bakardade isilean okupatuta bagaude? Hainbeste etxe handi gero eta familia ttikiagontzat? Hainbeste teleaio komiko

irriño bat argazkia ateratzeko soilik egiten badugu?

Bejon diezagula! Teknologian zenbat eta aurrerakoiago garen, orduan eta atzerakoiago gara harremanetan. Zenbat eta aholkulari gehiago inguruan orduan eta geu izatetik urrunago. Bizitza luzaroan irautea dela sinetsita bizia oharkabea doakigu. Inguruan (gauza, aholkulari...) asko izateak, geu (irudimena, sormena...) gutxi izatea dakar. ■

EIDER MADINA



Oihana
Etxebarrieta



KAZETARIA

Badugu alternatiba

BERRI TXARRAK taldeak *Iraultza txiki-en asanblada* abestian “Noren kontra zauden baino gehiago, zer egiteko prest” zauden galdegiten digu. Bide horretan hainbat urrats sumatu ditut azken denbora honetan. Adibidez, Argia Egunean *Txikitik eragiten* ari garenon harrotasuna eta elkartasuna ospatu genuen, Alternatiben herrian, berriz, “Bizitza duinak eta anitzak” aldarrikapenen erdigunean kokatu dira. Mugimendu, elkarte, egun guztietan eraikitzeke, sistemari hortzak erakutsi eta gure eredu propio eta jasagarria sortzeko grina ikusi dut, baita egikaritzen ari diren

proiektuen saretzeak, jakintza elkartrukeak...

Eta txikitasunaren elkartruke horretan, gauza handiak aurkitu ditut. Ikusi ditut urte guztian zehar elikagai ekologiko eta bertakoak jaten dituzten pertsonak, harreman heterosexistetatik at bizi direnak, zaintza kolektibizatu eta duintzen dutenak, elkarlanean aritzen diren kooperatibak, baita telefono eta elektrizitatea merkatu etikoan kontsumitzen dituzten pertsonak ere. Azken finean, gizartea eraldatzen ari diren pertsonak eta proiektuak ikusi ditut, eta horrek ez du atzera bueltarik. ■